# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia | Iruñean, 2001eko azaroaren 7an | 113 ZK.

### A U R K I B I D E A

F SAILA:

**Galderak:**

—Galdera, Vinsako kudeatzaile lanpostua betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or).

—Galdera, NUPeko Bioteknologia eta Baliabide Naturalen zentroan aplikatutako segurtasun sistemei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or).

—Galdera, Biodibertsitatearen Foru Batzordeak eginiko kontrolei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or).

—Galdera, Urbasako Parkeko zuzendari karguaren izendapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or).

—Galdera, Pertsona gorrentzako gizarte-laguntza arloan eginikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or).

—Galdera, Gabarderalen igerileku bat eraikitzeko dirulaguntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or).

—Galdera, Ergako tunelean arazorik antzeman izan zenentz. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or).

—Galdera, Kontratu blindatua deritzon formula erabiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or).

—Galdera, Haur gorrekin hezkuntza arloan eginikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or).

—Galdera, Nafarroako Artxiboan gordeta dauden agirien egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or).

—Galdera, Eskolta ibilgailu zenbaiten nondik-norakoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or).

—Galdera, Itoitzekiko elkartasun taldeko solidarioen gaineko informazioa jasotzeko zerbitzu berezi bat sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or).

—Galdera, Vinsako kudeatzaile lanpostua betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or).

—Galdera, Sakanako autobiako lan osagarrien egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or).

—Galdera, Getzaurreko eta Rekaldea industrialdeko sarbideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or).

—Galdera, Itunpeko irakasleen lansariak hobetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or).

—Galdera, Herriguneetan dauden azienda-ustiategiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or).

—Galdera, Vinsako zuzendari kudeatzailearen lanpostua betetzeko hautapen prozesuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or).
—Galdera, parke teknologikoa deritzonak azkenean izanen duen kokalekuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or).
—Galdera, Martzillako monasterio zistertarreko lurretan kale bat egiteko aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or).
—Galdera, Nafarroako Gobernuaren eraikinetan segurtasun eta zainketa zerbitzuak emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or).
—Galdera, Foruzaingoa Korrika dela-eta bide-segurtasuna zaintzen ez aritzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or).
—Galdera, Renfek Nafarroako trenbide sarean eginikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or).
—Galdera, Gainerako autonomia erkidegoetan Kohesio Funtsaren bidez biztanleko eginiko inbertsioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or).
—Galdera, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zaharrentzako oporraldi programetan lekuak erreserbatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or).
—Galdera, RTVE ente publikoko kontseilu aholku-emaileak salatutako egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or).
—Galdera, Sendagaiak ordaintzeko modua aldatzeko aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or).
—Galdera, Altsasuko suhiltzaileen parkeko zerbitzu medikuduna hobetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or).
—Galdera, 2001-2002 ikasturteko aurrematrikulazio datuei buruzkoa, hezkuntza-maila eta hizkuntza-eredu-ka. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or).
—Galdera, Erreserben Zentralaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or).

**F saila:**
**GALDERAK**

# Vinsako kudeatzaile lanpostua betetzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak Vinsako kudeatzaile lanpostua betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko apirilaren 2ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Vinsako kudeatzaile lanpostua betetzeari buruz. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Garai hartan Vinsako zuzendari-kudeatzailea zenak lanpostua utziko zuela jakin eta haren ordezkoaren bila hasi ginen. Horretarako erabilitako bideetako bat izan zen langileak hautatzeko Administrazioaz kanpoko enpresa bat kontratatzea.

2. 1.167.424 pezeta ordaindu ziren lan horrengatik.

3. Azkenean hautaturiko pertsonak ez zuen gainditu kontrataturiko enpresak prestaturiko hautapen prozesua, hain zuzen ere ordezkoa aurkitzeko bideetako bat.

4. Kontrataturiko enpresak 4 izangai proposatu zituen lanposturako, 3 sektore pribatukoak eta 1 Foru Komunitateko Administraziokoa. Hautatu ez ziren bestelako izangai batzuk ere egon ziren, horietako batzuk Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko eta Vinsako plantillakoak. Aurreko hautapena gainditu zuten lau horietatik bat bera ere ez zela egokia jo zen; hona arrazoiak:

– Higiezinen sektorea ez ezagutzea (aurretiko hautapena gainditutako 2ren kasuan).

– Higiezinen enpresa bat kudeatzeko praktikarik ez, nahiz eta kargu tekniko baterako gaitasuna eduki (aurretiko hautapena gainditutako beste bien kasuan).

– Azken batean, denborarik galdu gabe eta errendimendu osoz bere eginkizunetan hasteko gaitasun eza (aurretiko hautapena gainditutako lauen kasuan).

Hori zela eta, aurreko baldintza horiek guztiak bildu, Komunitate barnean eta kanpoan ere aitorturiko izena eduki eta enpresa barrutik ezagutu (lehendik bertan lan egindakoa zen) eta sektore publikoan lan egiteko bokazio argia zuen pertsona bat kontratatzearen alde egin genuen. Vinsako aurreko zuzendari-kudeatzaileak eta Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza zuzendari nagusiak izangaiari buruzko oniritzia eman zuten; gero enpresako Administrazio Kontseiluak aho batez onartu eta izendatzeko proposatu zuen, inguruabar guztiak kontuan hartuta.

5. Hautaturiko izangaien artean, Luis Ciriza Arístregi zegoen; garai hartan Vinsako Administrazio Kontseiluko kidea zen.

6. Itxura batean, ez da legea urratzen Vinsako kontseilari bat Vinsa barnean edo kanpoan langileak hautatzeko prozesu batera aurkezteagatik. Gainera, hautapen prozesu batera aurkeztea erabaki guztiz pertsonala da; beraz, ez da bidezkoa da horri buruzko iritzirik ematea.

7. Goi karguen bateraezintasunen araubidea azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legean dago arautuata.

8. Une hauetan, abian dago anonimoaren egilea nor izan zen argitu eta egileak edo egileek izan

ditzaketen erantzukizunak zehazteko ekintza judiziala.

9. Poliziaren ikerketaren emaitza eta Ciriza Arístegi jaunari faxak igortzea leporatzearen berri komunikabideetara iritsi zenez, Nafarroako Gobernuak Vinsako Administrazio Kontseiluan zuen kargutik kendu du Luis Ciriza Arístegi jauna eta onartu egin du Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Zuzendaritza Nagusiko Plangintza Zerbitzuko buruaren dimisioa.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko apirilaren 19an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

---

# NUPeko Bioteknologia eta Baliabide Naturalen zentroan aplikatutako segurtasun sistemei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak NUPeko Bioteknologia eta Baliabide Naturalen zentroan aplikatutako segurtasun sistemei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko apirilaren 2ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du NUPeko Bioteknologia eta Baliabide Naturalen zentroan aplikatutako segurtasun sistemei buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Gure informazioaren arabera, NUPeko Bioteknologia eta Baliabide Naturalen zentroari (zentroak titular bat baino gehiago du: Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Nagusia, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Nafarroako Gobernua) GAOekin egitekoa zen jarduera bakar bat baimendu zaio, zehazki genetikoki aldarazitako patatarekin entsegu bat egiteko karbohidratoen metabolismoa aldarazteko. Entsegua zentroko negutegian egin zen 1999an eta aldez aurretik Biosegurtasuneko Foru Komunitateko eta Espainiako batzordeen aldeko txostena izan zuen.

Kontuan hartuta Estatuko Administrazioa ere titularren artean dagoela eta ekainaren 3ko 15/1994 Legearen 30. artikuluan xedatutakoarekin bat, Zentroan GAOekin egiten diren jardueretarako baimena ematea Estatuko administrazioari dagokio.

Jakinarazpen haren tramitazioan, Biosegurtasuneko Foru Komunitateko eta Espainiako batzordeek alderdi hauek baloratu zituzten: askatzearen xede den GAOak osasunerako eta ingurumenerako duen arriskuaren ebaluazioa, askatzea egiteko modu zehatza, Zentroaren baliabide tekniko eta profesionalak eta askatzea nola egin zen, eskura dauden instalazioak eta ekipoak eta Zentroaren biosegurtasun prozedurak. Proposatutako jarduera aurrera eramateko zentroa egokia zela izan zen balorazio orokorra.

Zentroaren segurtasun sistema zehatzei buruz, berriz, esan beharra dago zentroak berak berriki aurkeztu duela, GAOak toki itxian erabiltzeko beste jarduera bat baimentzeko prozeduraren barrenean, Nafarroako Unibertsitate Publikoko laborategietako segurtasun prozedurari buruzko gidaliburu bat.

Zentroak segurtasun zerbitzu baimendua du, Unibertsitate Publikoak kontratatua, Zentroko Zuzendaritzaren baimena duten pertsonei mugaturiko instalazioetan beste inor ez dela sartzen bermatzen duena.

2. Erantzun honi datxekio Nafarroako Unibertsitate Publikoko laborategietako segurtasun prozedurari buruzko gidaliburuaren kopia.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko apirilaren 19an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

(Oharra: Aipatu kopia foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

---

# Biodibertsitatearen Foru Batzordeak eginiko kontrolei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak Biodibertsitatearen Foru Batzordeak eginiko kontrolei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko apirilaren 2ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Biodibertsitatearen Foru Batzordeak eginiko kontrolei buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Genetikoki aldarazitako organismoekin (GAO) Foru Komunitateko lurraldean egiten diren jardueren gainean Biosegurtasunerako Foru Batzordeak egin edo koordinatu dituen kontrolak hauexek izan dira, zehazki:

1. Jakinarazpenen (baimen eskaerak) balorazioa eta txostena.

2. GAOekin jarduerak egiten diren instalazioak eta ekipamendua zuzenean ikuskatzea eta txostenak ematea, jakinarazitako jardueraren bioarriskuaren maila kontuan hartuta, giza eta teknika baliabideen, arriskuei aurrea hartzeko neurrien eta biosegurtasun prozeduren egokitasunari buruz.

3. GAOekin egiten diren jardueren jarraipen eta ikuskatze zuzena, Foru Batzordeak arrisku handiko unetzat hartzen dituen etapak garatzen direnean.

4.Emandako baimenek, GAOekin egiten diren jardueretarako arauek eskatzen dituzten baldintzak betetzea eskatzeaz gain, jakinarazlea behartzen dute balizko ondorio negatiboen jarraipen plan bat gauzatzera, erabilera edo askatzen egiten den baldintzen erregistro bat betetzera eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusian aurkeztera amaierako txosten bat, emaitzak eta gertaturiko gorabehera edo desbideraketak, gertatu badira, deskribatzen dituena.

Biosegurtasunerako Foru Batzordeak koordinatu, gainbegiratu eta ebaluatzen ditu kontrol jarduera hauek eta haien emaitzak.

2. Biosegurtasunaren arloko oinarrizko araudiak Nafarroako Foru Komunitatearen esku utziriko eginkizunak antolatu eta modu egokian betetzeko xedeaz, ekainaren 22ko 204/1998 Foru Dekretuak (uztailaren 22ko 87. NAO) Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari esleitu zizkion eginkizun horiek, eta Biosegurtasunerako Foru Batzordea sortu zuen, aholku eman eta parte hartzeko organo departamentu artekoa izan zedin.

Batzordeko kide dira Ingurumen zuzendari nagusia, Biodibertsitatea zaintzeko Zerbitzuko zuzendaria, eta departamentu hauetako ordezkari bana: Hezkuntza eta Kultura, Osasuna, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura eta Industria, Merkataritza, Turismo eta Lana.

Ondoren, urtarrilaren 12ko 6/2000 Foru Aginduaren bitartez (otsailaren 7ko 17. NAO), Biosegurtasunerako Foru Batzordearen antolaketa eta jardunbiderako arauak ezarri ziren, batzordeko buru Ingurumen zuzendari nagusia izendatu eta idazkaritza bat, batzordeko buruak hautatutako batzordekide batek bete beharrekoa, sortu zen.

3. Ekainaren 3ko 15/1994 Legeak Estatuko legerian sartu zituen apirilaren 23ko 90/219/EEE Zuzentaraua, genetikoki aldarazitako mikroorganismoak (GAM) toki itxian erabiltzeari buruzkoa,

eta 90/220/EEE Zuzentaraua, genetikoki aldarazitako organismoak (GAO) ingurumenean borondatez askatzeari buruzkoa. Horrekin batera, autonomia erkidegoen esku utzi zituen genetikoki aldarazitako organismoak toki itxian erabiltzeari buruzko eginkizunak eta horiek ikerketarako, garapenerako edo merkaturatzea beste helburuetarako borondatez askatzeko baimenei buruzkoak, salbu eta jardueren helburua merkaturatzea edo botikak garatzea denean edo Estatuko administrazioaren menpeko erakundeek sustatutakoak direnean.

Lege horrek berak autonomia erkidegoei esleitzen dizkie aipatutako legearen esparruan eginiko jardueren ikuskapena eta kontrola, eta orobat, horiek gauzatzean eginiko arau-hausteei doazkien zehapenak jartzea.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak baimenak emateko beharrezkoak izanen dira aurretik Biosegurtasunerako Foru Komunitateko eta Espainiako batzordeen txostenak, lotesleak izanen baitira baimena ematearen kontrakoak badira edo baimena emateko baldintzak ezartzen badituzte.

Beraz, Biosegurtasunerako Foru Batzordearen eginkizunak, funtsean, hauexek dira:

. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari aholkularitza zientifiko eta teknikoa ematea biosegurtasunaren arloan.

. Nafarroako Foru Komunitatean GAOekin egiten diren jardueretan aholku ematea eta zeregin horretan parte hartzea, bai eta bidezkoak diren baimenak ematean ere.

. Jarduera horietan aritzen diren entitateei aholkularitza ematea GAOekin egiten diren jardueretan aplikatzekoak diren irizpide, betebehar eta arauen inguruan.

. GAOekin egiten diren jardueretan Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari dagozkion ikuskatze eta kontrol lanak koordinatu eta ebaluatzea.

. Biosegurtasunerako Espainiako Batzordearekin eta Europar Batasuneko lan taldeekin informazio trukatzea eta jarduera koordinatzea.

Batzordearen lan metodologia aholkularitzaren arloko beste edozein organo kolegiaturenaren antzekoa da eta ekainaren 22ko 204/1998 Foru Dekretuaren eta hura garatzen duen urtarrilaren 12ko 6/2000 Foru Aginduaren (otsailaren 7ko 17. NAO) xedapenetatik heldu zaio. Lehen ere aipatutako arau horiek Biosegurtasunerako Foru Batzordearen eskumenen banaketa, osaketa eta antolaketa eta jardunbiderako arauak ezarri zituzten.

Batzordeak osoko bilkuretan jarduten du, Ingurumen zuzendari nagusiak, batzordeko buruak, alegia) deituta; deialdiak bileraren gai zerrenda eta gai horiek aztertu eta eztabaidatzeko behar den dokumentazioa izaten du erantsirik. Bilerak amaituta, bileran izandako eztabaidak eta hartutako erabakiak biltzen dituen akta prestatu eta igorri egiten da.

Biosegurtasunerako Foru Batzordeak hizpide izaten ohi dituen gaiak hauexek dira:

. Borondatez askatu eta toki itxian erabiltzeko jardueren jakinarazpenak aztertu eta haiei buruzko txostena egitea.

. Batzordeak sustatu eta koordinaturiko zainketa eta kontrol jarduketak.

. Batzordeak sustaturiko ikerketa programak.

. Gure erkidegoan biosegurtasuna sustatzeko batzordeak bultzatutako jarduerak.

. Espainiako Biosegurtasunerako Batzordearen jardunari buruzko informazioa.

. Arau berriei, nazioarteko jarduera eta erabakiei eta beste zenbait gairi buruzko informazioa.

Batzordeak 1999 eta 2000. urteetan sustaturiko programen aztergaiak izan dira artoaren polenaren sakabanaketa eta Bt artoaren ondorioak fauna osagarriarengan, bigarrena azken bi urteotan. Bi azterlanak argitaratuta daude, baina emaitzak Biosegurtasunerako Foru Komunitateko eta Espainiako batzordeetako kideei baizik ez zaizkie aurkeztu eta banatu.

Nabarmendu nahi dugu Foru Komunitateko batzordeko kide batek parte hartu duela “GAOak borondatez askatzeko jardueren gaineko ikuskapenak bateratzeko Europako Lantaldeak” 2000 eta 2001. urteetan Bernan eta Firenzen, hurrenez hurren, eginiko bileretan.

Gure erkidegoan biosegurtasunari laguntzeko jarduerei dagokienez, aferan zerikusia duten eragileei aholku zuzena emateaz gain, 2000. urtean honako jarduera hauek bete dira, Biosegurtasunerako Foru Batzordeak sustatuak eta Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak kontratatuak:

Biosegurtasunari buruzko ikastaroa, GAOekin jarduerak egiten dituzten entitateetako teknikarientzat eta zainketa eta kontrol lanak egiten dituzten edo egin ditzaketen foru administrazioko langileentzat.

GAOekin egin edo egitekotan diren jardueren egoerari buruzko txostenak.

Mikroorganismoekin eta genetikoki aldarazitako landareekin eginiko jardueretarako biosegurtasuneko bi gida, hurrenez hurren, prestatzea.

Foru Komunitateko arrisku biologikoak direlaeta larrialdi planerako lehendabiziko proposamena egitea.

4. Erabiltzen diren segurtasun neurriak eta kontrol bitartekoak dira Europan eta Estatuan GAOekin egiten diren jardueren arloko arau ugaritan ezarritako prozedurak eta erregulazioak Foru Komunitatearen eskumenen esparruan aplikatzetik heldu direnak.

Segurtasun eta kontrolerako hasierako neurriak prebentzioaren arlokoak dira eta GAOekin egin beharreko jarduerak baimendu aurretiko tramitazioan aplikatzen dira. Jarduera hauetarako baimenen eskatzaileak Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan aurkeztu behar du eskabidea eta dokumentazioa, honako hau barne, funtsean:

Egin beharreko jardueraren deskripzioa.

Aldaketa jasoko duen organismoaren deskripzioa, erabili beharreko GAOrena eta ingurumenerako eta giza osasunerako izan dezakeen arriskuaren ebaluazioa.

Jardueren eta biosegurtasunaren eta arriskuen prebentzioaren ardura duten teknika eta giza baliabideen deskripzioa.

Jarduerak eginen diren instalazioen eta eskura dauden ekipoen deskripzio zehatza.

Jardueran erabiltzen diren biosegurtasuneko prozeduren deskripzio zehatza, lan arriskuen prebentzioa, laboratategi mikrobiologikoko praktika egokiak, hondakinen suntsiketa, eta abar barne.

Jardueraren arduradunak egin beharreko kontrolak eta erregistroak.

Biosegurtasunerako Foru Batzordeak txostena luzatzen du GAOen arriskuaren gaineko ebaluazioaz eta aurkeztutako dokumentazioa behar bezalakoa den –beharrezkoa iritziz gero dokumentazio osagarria eskatzen dio jakinarazleari–, eta azkenean Ingurumen zuzendari nagusiari igortzen dio, honek eskaerak ebatz ditzan. Gai honetako foru arauek, kautela gehigarri gisa, Espainiako Biosegurtasunerako Batzordearen aurretiko txosten loteslea agintzen dute Foru baimen ematea Komunitatearen eskumenekoa den jardueren kasuan.

Zein jarduera den, horri dagokion foru administrazioko langileek zainketa eta kontrol lanak betetzen dituzte, jarduera hasi aurretik eta arrisku handieneko uneetan, lehendik zehaztutakoetan, bisitak eginez, eta jakinarazleak egin beharreko autokontrolen eta erregistroen emaitzak kontrolatzen dituzte, jarduera, etapa guztietan, arauak eta baimena emateko ebazpenean ezarritako baldintza berariazkoak betez gauzatzen dela egiaztatzeko. Foru Komunitateko administrazioaren langileek GAOekin egiten diren jarduera guztietan betetzen dituzte zainketa eta kontrol lan horiek, baimena zeinek eman duen, Estatuak edo Foru Komunitateak, alde batera utzita.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko apirilaren 19an.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

# Urbasako Parkeko zuzendari karguaren izendapenari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak Urbasako Parkeko zuzendari karguaren izendapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko apirilaren 2ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Urbasako Parkeko zuzendari karguaren izendapenari buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.Ingurumen Departamentuak, 2000ko abenduaren 20ko 3248 Ebazpenaren bidez, “Gestión Ambiental-Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A.” sozietate publikoari egin zion enkargua Urbasa eta Andiako natur parkearen mantentze lanen koordinaziorako laguntza teknikoaz arduratzeko, 2001ean.

“Gestión Ambiental-Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A.” sozietate publikoak administrazioko, enpresako bertako eta beste entitate batzuetako zenbait profesionalekin hitz egin zuen, bete nahi ziren helburuak aurrera eramanen zituen pertsona egokiaren bila. Era berean, sozietatean egoten den “lan-poltsa” ere aztertu zen.

Lanpostuaren ezaugarriak, parkean bertan kokatu behar baita, eta berezitasunak ikusirik, Francisco Alvarez Davila jauna pertsona egokiena zela iritzi zitzaion, kontuan harturik hasiera batean behintzat aldi baterako kontratua zela, kontratu mota horren gaineko legeriaren menpekoa.

2. Haren curriculum vitae:

– Alde hartan bizitzeko arazorik ez.

– Hizkuntza: euskaraz badaki.

– Lan esperientzia.

3. “Nafarroako” profesional batzuekin ere izan ziren mintzaldiak eta harremanak, baina ezezko erantzunak jaso ziren, lanpostuaren ezaugarriak (lansaria, behin-behinekotasuna eta kokapen fisikoa) zirela eta.

4. Urteko soldata gordina: 4.800.000 pezeta.

5. 2001. urterako, 1. puntuan adierazitako enkarguan zehaztu bezala, badago laguntzaile bat, lanaldi osoan aritzen dena parkeko abeltzaintzaren arloko gaiak koordinatzen.

Bestalde, Aste Santuan, asteburuetan (apiriletik urrira) eta uztaila-abuztuan zerbitzuak langile gehiago izanen du informazio eta zaintza lanak betetzeko.

6. Urbasa-Andia parkea ez da erakunde autonomo bat eta beraz, egin beharreko inbertsioak departamentuaren aurrekontu orokorretan ageri dira. Natur parke honen aurrekontuetako ildo orokorrak erabileren eta kudeaketaren plan zuzendariak (EKPZ) ezarritakoak dira, eta bertan 80 milioiko gastua dago aurreikusirik.

7.Parte-hartzea Urbasa-Andia parkearen Patronatuak, parkea sortu zuen legean definiturikoak, zehazten du.

8. Koordinazio, bizikidetasun eta informazio trukean oinarrituak, bakoitzari dagozkion eskumenen esparruan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko apirilaren 23an.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

# Pertsona gorrentzako gizarte-laguntza arloan eginikoari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak pertsona gorrentzako gizarte-laguntza arloan eginikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko apirilaren 10eko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak galdera egin du pertsona gorrentzako gizarte-laguntza arloan eginikoari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz.

1.Gorrei dagokienez, zer ekintza ari da Departamentua egiten gizarte-laguntzaren esparruan?

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak jarduketa hauek egiten ditu:

a) Entzumen arazoak dituzten pertsonen minusbaliotasunaren balorazioa.

b) Entzumen arazoak dituzten 0tik 3 urtera bitartekoentzat eta 16 urtetik gorakoentzat. Salbuespen gisa eta betiere beste departamentuek bere gain hartzen ez badute, 3 urtetik 16 urtera bitarte. Tratamenduaren programaren barrenean dago “Haurtzaroko hipoakusien antzemate goiztiarrerako departamentu arteko programa” izenekoan parte hartzea.

c) Entzumenaren defizit larriek eragindako pertsonen eta haien senideen entitate eta elkarteentzako dirulaguntzak.

d) Entzumeneko minusbaliotasunaren ziurtagiria duten pertsonentzako banakako laguntzak audifonoak erosteko.

e) Irakurtzeko telefonoak jartzea etxe partikularretan eta entitate publikoetan.

2. Aipaturiko ebazpena betetzeari dagokionez, zer asmo dago?

Ebazpeneko oharrak aztertzen ari dira eta haien bideragarritasunerako behar diren prozedurak eta baliabideak prestatzen.

3. Noiz gaurkotu zen azkenekoz gure Komunitateko gorren errolda?

Gorren errolda modu automatikoan eta iraunkorrean gaurkotzen da balorazioak egin ahala. Horregatik izaten ditugun datuak uneoro egoten dira gaurkoturik.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko apirilaren 19an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

# Gabarderalen igerileku bat eraikitzeko dirulaguntzari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix Mª Taberna Monzón jaunak Gabarderalen igerileku bat eraikitzeko dirulaguntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko apirilaren 26ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix Mª Taberna Monzón jaunak galdera egin du Gabarderalen igerileku bat eraikitzeko dirulaguntzari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz.

Gabarderalgo Kontzejuak dirulaguntza eskatu du igerileku irekiak eraikitzeko hiru urtez jarraian, 1998, 1999 eta 2000ko deialdietan, azken urte honetan haren udalaren bitartez, Zangozaren bitartez, alegia.

1. Zergatik kontzeju horrek ez ditu betetzen igerileku bat eraikitzeko dirulaguntza emateko oinarrizko irizpideak?

Nafarroako Foru Komunitateko kirol azpiegituren 1997/1999 eperako plan zuzentzaileak ezartzen zuen toki entitateen gutxieneko biztanle kopurua oinarrizko ekipamenduei dagokienez 500 dela. Gabarderalgo Kontzejuak 122 biztanle inguru ditu.

Bestalde, kirol azpiegituren 2000/2003 eperako plan zuzentzaileak helburuen artean ezartzen du oinarrizko kirol instalazioak (igerileku irekiak) ematea 1.000 biztanle inguru dituzten toki entitateei.

2. Zer neurri hartu beharko lirateke diruz laguntzeko moduko jardueren programan sartu ahal izateko?

Kirol instalazioen plan zuzentzaileek betetzen dituzten jarraibideak dira, besteak beste, Kontuen Ganbarak adierazitakoak, zeinak inbertsioak arrazionalizatzea aholkatzen baitu biztanle gehien dituzten toki entitateei garrantzi handiagoa ematen, diruz lagundutako instalazioetan erabiltzaileen errentagarritasuna handiagoa izan dadin.

Kirol instalazioen 2000/2003 plan zuzentzailean, berriz, lehentasuna eman zaie 1.000 biztanletik beherako toki entitateei, proiektu edo txosten baloratuak oinarrizkotzat hartutako instalazioak berritzekoak izan direnean.

Gabarderalgo Kontzejuak ez du aurreikusi haren kirol instalazioak berritzeko lanik plan zuzentzaile honen babesean.

Kirol instalazioen azken plan zuzentzailearen helburuetako bat da eskualdeko oinarrizko udalerriei instalazio duinak ematea eta eskualdea osatzen duten hirigune guztietako biztanleek instalazio horiek erabili ahal izatea baldintza berberetan.

3. Hurrengo laguntzei begira, irizpide hori aldatzerik ba al dago?

Orain arte ezarririko irizpideak aldatzeko etorkizuneko planetarako finkatuko diren helburuak hartu beharko dira aintzat, baina ulertzen da lehentasuna izanen dutela biztanle kopuruarekin eta oinarrizkotzat jotzen diren instalazioekin lotura zuzena dutenek.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko apirilaren 23an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

# Galdera, Ergako tunelean arazorik antzeman izan zenentz

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak Ergako tunelean arazorik antzeman izan zenentz jakiteko egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko apirilaren 2ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdetu du Ergako tunelean arazorik antzeman izan zenentz jakiteko.

Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Berriki bukatutako azterlanean arazorik atzeman zen Ergako tunelean?

Nafarroako tunelen egoerari buruzko azterlanean sakon aztertu zen Ergako tunelaren egoera, Nafarroako errepideen sareko gainerako tunel guztiena bezala (Belate izan ezik, azterlan berezi baten xede baita).

Berriki helarazi genizun azterlan horren laburpena. Ikusi ahal izan duzunez honakoa adierazten da bertan:

“Urritza, Azpiroz, Pagozelai, La Ferreira eta Ergako tunelen egoera ona da, estalduraren ikuspuntutik; baina La Ferreira eta Ergako tuneletan, zenbait tokitan, estalduraren lodiera 10 cm baino gutxiagokoa da”. (20. orr.)

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluak ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko apirilaren 23an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

# Kontratu blindatua deritzon formula erabiltzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix Mª Taberna Monzón jaunak kontratu blindatua deritzon formula erabiltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko apirilaren 2ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix Mª Taberna Monzón jaunak galdera egin du kontratu blindatua deritzon formula erabiltzeari buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Enpresek beraiek emandako informazioan ageri denez, lau dira Nafarroako enpresa publikoak, beraien goi zuzendaritzako kontratuetako klausuletan kargua uztean kalte-ordainak jasotzeko aukera aurreikusten duten bakarrak:

| Kargua | Enpresak bere aldetik atzera egiteagatik amaitutako kontratatuaren kalte-ordaina |
|---|---|
| Riegos de Navarra, S.A.ko zuzendari kudeatzailea | Urtebeteko soldata, gehi bi hilabetekoa zerbitzuan emandako urte edo zatiki bakoitzeko, gehienez ere bi urte |
| SODENA, S.A.ko zuzendari nagusia | Urtebeteko soldata |
| Agencia Navarra de Innoveción y Tecnología, S.A.ko zuzendari nagusia | Gehienez ere sei hilabeteko soldata |

| Kargua | Amaitutako kontratatuaren kalte ordaina |
|---|---|
| SODENA, S.A.ko Sustapeneko zuzendaria | Urtebeteko soldata |

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluak ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko apirilaren 25ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

---

# Haur gorrekin hezkuntza arloan eginikoari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Castillejo Herández andreak haur gorrekin hezkuntza arloan eginikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko apirilaren 10eko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak galdera egin du haur gorrekin hezkuntza arloan eginikoari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Haur gorren hezkuntzaren arloko arreta-beharrizanak egoki ulertzeko, kontuan hartu behar da Nafarroa dela koklearen ezarpen gehien egiten dituen erkidegoa. halako ezarpenak dauzkaten haurrek entzumen maila handia lortzen dute. Nafarroako Hezkuntza Bereziaren Baliabide Zentroko (NHBBZ) talde berezi batek aztertu eta jarraitzen ditu haur horien nondik norakoak.

Ikasturte honetan, entzumen arloko ezgaitasunen bat diagnostikaturik daukaten 79 haur dauzkagu eskolatuak. Ondoren aipatuko ditugu ikastetxeetan ikaskuntzarekin eta zeinuen hizkuntza erabiltzearekin lotuta antzeman diren beharrizanak eta bilatu diren konponbideak. Ikasle gor bat dago hezkuntzako derrigorrezko maila batean eskolatua egon eta curriculumera iristeko zeinuen lengoaiaren interprete baten laguntza behar duena. 1999/2000 ikasturtetik aurrera, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak zeinuen lengoaia dakien eta halako eginkizunetan ari den irakasle bat kontratatzen du; ikastetxez ikastetxe doa irakasle hori. Derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntzako etapan eskolatuta egon eta zeinuen lengoaiaren interpretea behar duten ikasleekin aritzeko, Nafarroako Gorren Elkarteko interpreteen eta NHBBZeko Entzumenaren eta Lengoaiaren arloko moduluko irakasle baten laguntza izaten dugu.

Bestalde, interesgarria da gorrek zeinuen lengoaia ikastea, informaziora iristeko beste laguntza-bide bat delako. Haur eta Lehen Hezkuntzan, gorren integraziorako lehentasuneko zentroa den Iruñeko "Victor Pradera" ikastetxean, eskolaz kanpoko jarduera gisa eskaintzen ari da ikasle gorrentzat eta baita gorrak ez direnentzat ere. 15 haurrek hartzen dute parte jarduera horretan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko apirilaren 27an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

---

# Nafarroako Artxiboan gordeta dauden agirien egoerari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako Artxiboan gordeta dauden agirien egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko apirilaren 10eko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Nafarroako Artxiboan gordeta dauden agirien egoerari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. Artxiboko agiriak lehengo leku berean daude. Apaletatik kendu ziren oker handiagoak ez izateko, baina berriz jarri ziren haietan arazoa konpondu ondoren.

2. Kalte txikiak izan dira, nahiz eta edozein gauzak eragin handia izan dezakeen papera bezain ahula den euskarri batean. Funtzionarioen arintasunak saihestu zuen kaltea handiagoak gertatzea.

3. Artxiboa ez dago itxita. Betiere, ur-ihesaren arazoa ez zen Nafarroako Artxibo Nagusiaren egoitzan gertatu, baizik eta Protokoloen Atalean. Atal hori eraikin independente batean dago.

4. Nafarroako Artxibo Nagusi berria eraikitzeko arrazoia da, hain zuzen ere, segurtasun baldintza egokiak ezar daitezkeela Nafarroako dokumentazio baliotsua gordetzeko. Bitartean, urte asko dira behar diren prebentzio neurriak hartu direla Artxibo Nagusiko segurtasun baldintzak hobetzeko; Protokoloen Atalaren kasuan, berriz, zailtasun gehigarri bat dago: etxebizitzen eraikin batean eta haren funtzionamenduaren mende dago, eta hirugarrenek ondoko beheko solairuetan egiten dituzten lanek arrisku handiak sor ditzakete.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko apirilaren 27an.

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

---

# Eskolta ibilgailu zenbaiten nondik-norakoei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak eskolta ibilgailu zenbaiten nondik-norakoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko apirilaren 2ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix Mª Taberna Monzón jaunak galdera egin du eskolta ibilgailu zenbaiten nondik-norakoei buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak aldizka ebaluatzen du emandako agindu eta jarraipen operatiboen betetzea, bai eta baliabide materialen erabilera ere, agintariei zerbitzu eta segurtasun babesa emateko garaian.

2. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak, ustekabeko inguruabarrengatik edo ebaluazio horien ondorioz, ahal duen neurrian, behar diren neurriak hartzen ditu segurtasun-neurriei eutsi edo haiek indartzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko apirilaren 30ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

---

# Itoitzekiko elkartasun taldeko solidarioen gaineko informazioa jasotzeko zerbitzu berezi bat sortzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Itoitzekiko elkartasun taldeko solidarioen gaineko informazioa jasotzeko zerbitzu berezi bat sortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko apirilaren 2ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak galdera egin du Itoitzekiko elkartasun taldeko solidarioen gaineko informazioa jasotzeko zerbitzu berezi bat sortzeari buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.Foruzaingoaren araubidea ez dago horren antolaketa eta eginkizunen plan zuzendarian, Nafarroako polizia kidegoei buruzko martxoaren 13ko 1/1987 Foru Legean eta hura garatzen duten erregelamenduetan baizik.

2. Ez da sortu edo eratu, ez eta modu informal batean ere, mota horretako eginkizunak bakarrik betetzeko inongo informazio zerbitzu berezirik edo unitate organikorik.

3.Konstituzioak segurtasuneko indar eta kidegoen kargu uzten du eskubide eta askatasunez libreki baliatzea babestu eta herritarren segurtasuna bermatzeko lana. Aipatutako Nafarroako polizia kidegoei buruzko foru lege horrek, bere aldetik, Nafarroako Foruzaingoaren esku uzten du honako eginkizun hauek betetzea: herritarren segurtasuna eta eskubide eta askatasun publikoez baliatze bakezkoa bermatzea (9.1.a artikulua) eta Foru Komunitateko erakundeen menpeko pertsonak, eraikinak eta instalazioak zaintzea eta ikuskatzea (9.1.a artikulua).

4.Herritarren segurtasuna, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak ezarri bezala (1982ko ekainaren 8ko eta 1984ko abenduaren 5eko epaiak) pertsonak eta ondasunak babestu eta herritarren lasaitasuna edo ordenari eusteko jarduera dela ulertzen da, bi helburuak banaezinak eta elkar baldintzatuak direla eta erakundeen nola eguneroko bizimoduaren funtzionamendua ziurtatzera bideraturik dauden jarduketa guztiak bere baitan biltzen dituztela.

5. Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeko eledunak jakinen du, zalantzarik gabe, informazioa funtsezkoa dela edozein erakunderen helburuak erdiesteko.

6. Informazioa eskuratzea ez da salbuespeneko jarduketa plan baten ondorioa, segurtasun indar eta kidegoen eginkizun behinenetako bat baizik eta era berean Nafarroako Foruzaingoaren aldizkako jarduera bat, legezkotzat hartu behar dena poliziaren jarduketa autonomoa ez denean eta Konstituzioaren aginduz esleitu zaien lana betetzeko egina bada, betiere oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen errespetuan oinarriturik eta polizia deontologiaren arauak zorrozki begiratuz.

7. Foruzaingoaren jarduketak informazioa eskuratzeko, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldearen interesekoak, aurreko idatz-zatian adierazitako baldintzetan eta bermeekin bete ziren. Haien helburua zen prebentzio dinamikak -errepresiokoak baztertuta- taxutu eta aplikatzea polizia kidego horrek bere esku legez dituen eginkizunak betetzean.

Iruñean, 2001eko apirilaren 30ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Indurain

---

# Vinsako kudeatzaile lanpostua betetzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak Vinsako kudeatzaile lanpostua betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko apirilaren 2ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Vinsako kudeatzaile lanpostua betetzeari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

1.Zure departamentuak inolako informaziorik al dauka Vinsa sozietate publikoko kudeatzaile-lanpostua betetzeari dagokionez?

Ez.

2.Sozietate publiko horretako administrazio kontseiluko zenbait kideri norbaitek bidalitako anonimo batzuen berri ba al du?

Ez.

3.Zerbait egin du gertakari horiei dagokienez? Zein?

Interesatuak dimisioa aurkeztu zuen eta Nafarroako Gobernuak onartu egin zuen 2001eko martxoaren 26an eginiko bilkuran.

4.- Zure departamentuak edo bertako norbaitek Iruñeko abokatu-bulego batean Vinsako gaur egungo kudeatzailea xede duen inolako urratsik ematea eskatu du?

Ez nuen Vinsarekin zerikusia zuen ezein aferaren berri; gero Luis Ciriza Ariztegui jaunak aitortu zuen bera izan zela.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001ko apirilaren 19an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

---

# Sakanako autobiako lan osagarrien egoerari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Sakanako autobiako lan osagarrien egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko apirilaren 10eko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak galdera egin du Sakanako autobiako lan osagarrien egoerari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Zertan da Sakanako autobiako lan osagarrien –guzti-guztien– betetze maila?

Guztiak amaiturik eta zerbitzuan daude, Olazti-Ziordia errepidea kenduta.

2. Zergatik ez dute egin Olazti eta Ziordiaren arteko zerbitzuko errepidea?

Lehentasun handiagoko beste inbertsio batzuk aurrekontuan egokitu beharragatik.

3. Noiz eginen dute?

Behar den dirua daukagunean.

4. Nafarroako Gobernuak izan al du harremanik EAEko Gobernuarekin edo Arabako Batzar Nagusiekin Arabako Egino eta Nafarroako Ziordiaren arteko zerbitzuko errepidea amaitzeko?

Bai.

5. Ba al du harremanik izateko asmorik?

Aurreko atalean erantzun dudala uste dut.

6. Ba al da hura egiteko inolako akordiorik?

Aurre akordio bat badago, oraingoz islatu ez bada ere dagokion inbertsio programazioan.

7. Baiezkoan, noizko eginen dute?

Ez dago datarik aurreikusirik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluak ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko apirilaren 30ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

# Getzaurreko eta Rekaldea industrialdeko sarbideei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Getzaurreko eta Rekaldea industrialdeko sarbideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko apirilaren 10eko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres galdera egin du Getzaurreko eta Rekaldea industrialdeko sarbideei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Rekaldea industrialdearen eta Getzaurreren artean gertatzen den arazo hori nolabait konpontzeko asmorik ba al du Nafarroako Gobernuak?

Nafarroako Gobernuak abian jarri du honezkero Beriainen, N-121 errepidearen gainetik, oinezkoentzako pasabide bat eraikitzeko proiektu baten kontratazioa.

Erabaki hori idatziz jakinarazi genion Beriaingo alkateari, 2001eko martxoaren 12an.

2.- Aurrekontuei dagozkienez gain, Beriaingo Udalak eginiko eskaerari baiezko erantzuna emateko beste oztoporik ba al dago?

Pasabide berria eraikitzeko behar den proiektua daukanean, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak bere inbertsioen birprogramazio bat eginen du, obra horien exekuzioari alde ekonomikotik aurre egiteko.

Hala eta guztiz ere, ikuspuntu teknikotik, zailtasun batzuk daude Getzaurreko aldean oinezkoen mugimenduak eta ibilgailuen trafikoa elkarrekin uztartzeko, eta biak eraikuntza proiektuan modu egokian integratzea aurreikusi da.

3.- Nafarroako Gobernuak ba al du Beriaingo Udalak proposatutakoaz beste alternatibarik arazo hau konpontzeko?

Aurreko ataletan erantzun diogu horri.

4.- Nafarroako Gobernuak asmorik al du Beriaini dagokionez seinalizazioa hobetzeko, bai A-15ean bai N-121ean, Beriainerako irteeran?

Seinalizazio hori berrikusi eta behar den kasuetan aldatuko da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluak ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko apirilaren 30ean.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

---

# Itunpeko irakasleen lansariak hobetzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak itunpeko irakasleen lansariak hobetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko apirilaren 20ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du itunpeko irakasleen lansariak hobetzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako itupeko ikastetxeetako apirileko nominan 2001erako hitzarturiko igoera sartu da, eta urtarril, otsail eta martxoari dagozkien doikuntzak egin dira.

Horretarako, Hezkuntza zuzendari nagusiaren martxoaren 20ko 236/2001 ebazpenaz, itunpeko irakasleen ordainsarien konturako ordainketa baimendu zen, 2001etik aurrerako ondorioekin; haren indarrez, % 5,33ko igoera baimendu da itunpeko ikastetxeetako langileen oinarrizko soldatan; ehuneko beste puntu bat igo da, gainera, DBHko bigarren zikloko eta Heziketa Zikloetako irakasleen soldata; gainera, urteko 77.854ko osagarri bat baimendu da DBHko lehen zikloko irakasleentzat.

Nafarroako itunpeko irakaskuntzaren arloko erakunde patronalek eta FSIE-SEPNA eta USO sindikatuek “Irakaskuntza itunduaren sektorean hezkuntzaren kalitatea eta lan baldintzak hobetzen joateko akordioa" sinatu zuten, 2000ko abenduaren 20an, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak eta enpresa-erakundeek sinaturiko oinarrien akordio bati jarraituz. Akordioaren sinatzaileek, CCOO, ELA eta LAB sindikatuekin batera, 2001eko urtarrilaren 8an Hezkuntza eta Kultura Departamentuari langile itunduei ordainsarietarako aurreikusitako igoera ordaintzea, urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Otsailaren 19an, Departamentuka, epe ertaineko plan ekonomikoaren (2001-2004) gastuei buruzko gehienezko kopuruak onetsi ziren; plan horretan sartzen da 2000ko abenduaren 20ko akordioari estaldura emateko hezkuntza-itunetarako urte anitzeko gastua, Ekonomia Zerbitzuak emaniko txostenean jaso bezala. Horren guztiaren ondorioz, Hezkuntza zuzendari nagusiak 2001eko otsailaren 23an txosten bat aurkeztu zuen, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Kontu-hartzailetzak bisatua, eta Hezkuntza eta Kultura kontseilariak Nafarroako Gobernuari helarazi zion abenduaren 20ko akordioa. 2001eko martxoaren 5ean eginiko saioan, Gobernuak baimena eman zuen Hezkuntza eta Kultura kontseilariak akordio hori bete eta jarrai dezan.

Akordioa betetzeko, martxoaren 12ko 66/2001 Foru Dekretua onetsi zen; foru dekretu horrek 2001. urteko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 19/2000 Foru Legearen hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritako hezkuntza itunen modulu ekonomikoak eta 35. artikuluko laugarren eta bosgarren ataletan ezarritako kuotak aldatzen ditu. 66/2001 Foru Dekretua onetsi eta gero, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak modua izan du sinaturiko konpromisoei aurre egin ahal izateko behar ziren libramenduak egiteko, bai lansarien igoerari dagokionez, bai modulu ekonomikoko beste kontzeptu batzuetan gertaturiko igoerei dagokienez ere.

2. “Irakaskuntza Publikorako Dirulaguntzak” proiektuan 12.198.477.000 pezetako aurrekontua dago; diru nahikoa da 2001eko ekitaldian Gobernuak hartutako konpromisoen kostuari aurre egiteko.

3. Itunpeko ikastetxeetako irakasleen irakastorduak murrizteko aukera hitzarmen kolektiboetako gaia da. Espainian, hitzarmen kolektiboak patronalaren ordezkariek eta sektoreko ordezkariek sinatzen dituzte.

4. Esan dugun bezala, Nafarroako Gobernuak ez du hitzarmen kolektiboak sinatzeko eskumenik, are gutxiago Administrazioak kontratatu ez dituen langileekin. Hitzarmenak, arlo autonomikokoak nahiz Estatukoak, sindikatuek eta patronalek negoziatu eta sinatu behar dituzte. Gero, kasua bada, Administrazioak haiek bereganatzeko modukoak diren ala ez aztertuko du.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 8an.

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

# Herriguneetan dauden azienda-ustiategiei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak herriguneetan dauden azienda-ustiategiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko apirilaren 20ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Herriguneetan dauden azienda-ustiategiei buruz. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Garai hauetan, Departamentuak Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones SA enpresari emandako lana bukatzen ari da; hain zuzen ere, abeltzaintza ustiategien inbentarioa eguneratu nahi da, ingurumen egoera ebaluatzeko bidea emanen duen informazioarekin, ikuspegi teknikotik eta lege-ikuspegitik ere.

2. Aipatu lanean, aurreikusita dago udalekin lan egitea informazio osatu eta zehatza edukitzeko.

3. Behin informazio guztia daukagunean, aurreikusita dago emaitzak Gobernuko ukituriko gainerako departamentuekin (Nekazaritza eta Osasun departamentuak) eta sektoreko ordezkariekin aztertzea, etorkizunerako jarduketak eta neurriak proposatzeko.

4. Departamentuak uste du aktiboki inplikatu behar dela horretan, legez dagozkion betebeharrengatik eta sektore horren ingurumenaren gaineko eraginengatik, udal eremu gainditzen baitute.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 7an.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

# Vinsako zuzendari kudeatzailearen lanpostua betetzeko hautapen prozesuari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Vinsako zuzendari kudeatzailearen lanpostua betetzeko hautapen prozesuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko apirilaren 20ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak galdera egin du Vinsako zuzendari kudeatzailearen lanpostua betetzeko hautapen prozesuari buruz. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Bai. Enpresak txosten bat eman zuen, aurkezturiko guztien artean hautaturiko 4 izangaien datu pertsonalak, ikasketei eta prestakuntza osagarriari buruzko datuak, lanari buruzkoak, inteligentzia testak, nortasun testak eta ebaluazio oro-

korrak emanez. Datu horiek isilpekoak dira eta ezin dira inolaz ere zabaldu pertsona horien baimenik gabe; beraz, ez ditugu erantzun honetan erantsi.

2. Lanarengatik kobratutakoa, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak aurretik eginiko beste galdera baten erantzunean adierazi genuen bezala, 1.167.424 pezeta izan ziren. Fakturen kopiak erantsi ditugu.

3. Ez.

4. Bai.

5. Ehuneko 9,1958, ehuneko 10 baino gutxiago beraz: legez baimendutako gehieneko mugatik behera.

6. Ez dagokit niri datu hori ezagutzea; betiere, isilpeko datu bat da hori.

7. Ez LARCOVI enpresak, ez bestelako enpresa sustatzaileek ez dute orain eta lehen ere ez dute izan merkataritza harremanik VINSArekin, Estatuko beste enpresa publiko batekin duela zenbait urte likidaturiko enpresen aldi baterako batasun bat ez bada. Nafarroan lan egiten duen enpresa sustatzailerik bakar bat ere ez da VINSArentzat ez merkataritza-mehatxu, ez lehiakide ere. VINSAk babes ofizialeko etxebizitzak baizik ez du sustatzen, eta zuzenean Foru Administrazioari nahiz toki entitateei erosten dizkie urteko programak aurrera eramateko behar dituen lurrak. Gainerako enpresek edo partikularrei erosten dizkiete edo Foru Administrazioak deituriko lehiaketetara aurkezten dira. Hori guztia dela eta, lehengo zuzendari kudeatzaileak LARCOVI enpresako akzioak edukitzeak ez du inolako garrantzirik lehiakortasunaren ikuspuntutik.

8. Galdera hori ez da bidezkoa une hauetan. Hala eta guztiz ere, argitu beharra dago pertsona baten izen ona eta onestasuna zuzenean lotuta daudela beren giza- eta lan-ibilbidearekin. Lehengo zuzendari kudeatzailearen kasuan, ukaezinezkoak dira horiek.

9. Zuzenena une bakoitzean lanaren ikuspegitik eta etikoki gaitasun gehien duen pertsona izendatzea da, baldin eta Nafarroako Parlamentuak berak lanpostu horietara iristeko ezarri dituen baldintzak betetzen baditu.

10. Saldaña andreak bere garaian goi karguen aitorpena egin zuen, nahitaez egin behar baitzuen; behar den erregistroan jasota dago hori.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 181. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 7an.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

# Parke teknologikoa deritzonak azkenean izanen duen kokalekuari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Parke teknologikoa deritzonak azkenean izanen duen kokalekuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 2ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andreak galdera egin du Parke teknologikoa deritzonak azkenean izanen duen kokalekuari buruz. Hona Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo kontseilariaren erantzuna:

1. Une honetan, ez da betikoa.

2. Galarko Udalak planteaturiko baldintzetan, aukera hobeak daude beste leku batzuetan.

3. Hizketan ari gara, horretarako.

4. Berrikuntza Parkea urbanizatzeko kostuak, edozein dela ere kokapena, Nafarroako Gobernuaren edo horretarako izendatzen den enpresa publikoaren kargu geratuko dira.

Kasua bada, hirigintza prozedura egokiena aplikatuko da, ukituriko udalekin ados jarrita.

5. Hogeita hamar enpresa baino gehiago dira, tamaina oso ezberdinekoak, lurzatiak haiei adjudikatzeko interesa erakutsi dutenak, haien behin betiko kokapena eta ezaugarriak ezagutu ondoren.

Energia Berriztagarrien Zentro Teknologikoa dela eta, orain arte ondoko urratsak eman dira: lankidetza hitzarmen bat sinatu dute Nafarroako Foru Komunitateak, Estatuko Administrazio Orokorrak eta Ciematek, zentroa garatzeko fundazioa eratu eta finantzatzeko; abenduaren 12an, fundazio hori eratu zen; batzorde kudeatzailea hilabetean behin biltzen da patronatuak haien esku utzitako lanak egiteko; beharrizanei buruzko programa bat egin da; lehiaketa publiko bidez bost talde hautatu dira zentroa egiteko ideien lehiaketan parte hartzeko, eta duela 6 hilabetetik hona zazpi pertsona ari dira lanean –hitzarmenari jarraituz, Ciematen ari dira espezialtzen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 4an.

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

---

# Martzillako monasterio zistertarreko lurretan kale bat egiteko aukerari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Martzillako monasterio zistertarreko lurretan kale bat egiteko aukerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko apirilaren 10eko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Martzillako monasterio zistertarreko lurretan kale bat egiteko aukerari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. Galderan "katalogazioa" eta interes kulturaleko ondasunaren deklarazioa nahasten ditu. Lehenbizikoa planteamendu urbanistikokoa da gehiago; bigarren kontzeptuak, ordea, Ondare Historikoari buruzko Legearekin du zerikusia –beraz, Vianako Printzea Erakundearen eskumena da–. 123-124 lurzatiko eraikina katalogaturik dago, baina ez dago hari buruzko interes kulturaleko ondasunaren deklaraziorik, ez eraikinari buruzkoa ez Martzillako hirigune historikoari buruzkoa ere. Hori dela eta, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ez du Marcillako Udalak aipatu lurzatian egin dituen jarduketen berri.

2. Vianako Printzea Erakundeak Martzillako arau subsidiarioen aldaketa puntual bati buruzko espedientea jaso du, herriko udalak igorria, 123-124 lurzatiko eraikina deskatalogatzeko; izan ere, 1997an eraitsi zen. Eskari horren erantzuna tramitatzen ari da, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeari jarraituz (uztailaren 15eko 85. Nafarroako Aldizkari Ofiziala).

3. Esan bezala, ez dago interes kulturaleko ondasunaren deklaraziorik, Vianako Printzea Erakundearen jarduketa justifikatzeko.

4. Vianako Printzea Erakundeak ez du inolako salaketarik jaso.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 8an.

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

# Nafarroako Gobernuaren eraikinetan segurtasun eta zainketa zerbitzuak emateari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuaren eraikinetan segurtasun eta zainketa zerbitzuak emateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko apirilaren 20ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren eraikinetan segurtasun eta zainketa zerbitzuak emateari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. Erakundeen eraikinetako barneko segurtasuna, hasteko, erabiltzaileei dagokie eta, azken batean, haiek atxikita dauzkaten administrazioko organoei edo erantzukizun hori berariaz esleituta daukatenei.

Nafarroako Foruzaingoak ahalmena dauka Nafarroako Foru Erakundeetako pertsonak, eraikinak eta instalazioak babesteko eginkizunak betetzeko (Nafarroako Polizi Kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legeko 9.1.b artikulua); halere –hala behar zuen ezinbestez–, ezin da inolaz esan eskumen hori esleituta duenik.

2. Administrazioaren eraikin eta instalazioetako segurtasun integralak barne hartzen dituzten zerbitzuen funtzionamendu normala zaintzeko, ondarea zaintzeko eta jatorri ezberdineko gertakariak gertatuz gero pertsonak ere zaintzeko aurreikuspen neurriak, aurre neurriak eta babes neurriak hartzea suposatzen du.

Segurtasun horren zerbitzuan, eraikin eta instalazioetako eraikuntza-baldintza eta -ezaugarriak daude –praktikan, proiektu teknikoaren mailan baizik ezin direnak aurreikusi–, antzemate eta babes instalazio finkoak eta, noski, eragile publiko nahiz pribatuek (Segurtasun Kidego eta Indarrak, segurtasun pribatuko zerbitzuak edo langile zibilak) ematen dituzten zerbitzuak eta egiten dituzten lanak.

3. Betiere, Nafarroako Gobernuak eraikinen babesa dela-eta bere eskumenak gauzatzea haren esku dagoen ahalmen bat da; eskumen horiek aurrera eramateko, baliabide propioak edo segurtasun pribatuaren kontratazioa erabil ditzake.

4. Nafarroako Gobernuaren Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua, indarreko legeen menean dagoenez gero, Foruzaingoa erakundeetako eraikin eta instalazioetan babes eginkizunetan ezartzeko, polizi arrazoiei begiratzen die eta ez bete beharreko eginkizunei edo egokitasun ekonomikoko irizpideei, besteak beste; hori guztia ez da oztopoa, ordea, Barne zuzendaritza nagusiak administratiboki kontrataturiko zaintza eta babes zerbitzuen tutoretza eta goreneko zuzendaritza lanak betetzeko.

Horri dagokionez, egokiagoa iruditzen zaigu foruzainak erabiltzea berariaz polizialak diren eginkizunetan; haiek ezin dituzte legez bete segurtasun pribatuko enpresetako kideek.

5. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak, instituzionaltzat jotzen diren eraikinak alde batera utzita (Nafarroako Jauregia, Nafarroako Parlamentua eta Nafarroako Auzitegi Nagusia), segurtasun pribatua kontratatzen du egoki jotzen dituen eraikin eta instalazioen gainerako kasuetan.

Hori dela eta, 1995etik hona 36 kontratu administratibo egin dira helburu horretarako, segurtasun pribatuko ondoko enpresekin:

. Visena, SA.

. Seguribérica, SA.

. Seguridad Empresarial de Navarra, SL. (SEN).

. Integral Tratamientos de Seguridad, SA (ITS).

. Prosegur Compañía de Seguridad, SA.

. Blindados del Norte, SA.

. Prosetecnisa.

. Compañía Integral de Seguridad, SA (CIS).

. Visa, SA.

. Serramar, SL.

6. Aurreko ataletan adierazitako irizpideari jarraituz, departamentu honek beharrezkoa den guztietan segurtasun pribatua kontratatzen jarraitu nahi du, beharrezkoa den guztietan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 11n.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

---

# Foruzaingoa Korrika dela-eta bide-segurtasuna zaintzen ez aritzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Foruzaingoa Korrika dela-eta bide-segurtasuna zaintzen ez aritzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko apirilaren 20ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak galdera egin du Foruzaingoa Korrika dela-eta bide-segurtasuna zaintzen ez aritzeari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. Hasteko, Foru Komunitatean indarra duen antolamenduaren arabera, ikuskizun edo jarduerak erabilera publikoko lekuetan antolatzen dituztenek beren gain hartu behar dituzte parte-hartzaileen, ikusleen eta hirugarren pertsonen segurtasuna bermatzeko behar diren neurriak –administrazio publikoek ezar ditzaketen neurriak alde batera utzita–, zainketa zerbitzua barne, jardueraren ezaugarriak hala eskatzen dutenean.

Aurrekoa gorabehera, departamentu honen irizpidea izan da Foruzaingoak trafikoa zaintzea bide publikoetan egiten diren lehiaketa izaerako froga guztietan eta motordun ibilgailuek parte hartzen dutenetan: halakorik ez da gertatzen aztergai dugun kasuan. Korrikaren ezaugarriak Foruzaingoak aipatu zerbitzua emateko egokiak ez direnez, arlo horretan eskumena duen zerbitzuak ezezkoa eman dio zerbitzu-eskariari.

Hala eta guztiz ere, bere egunean, behar ziren jarraibideak eman ziren zerbitzuan ari ziren patruilek trafikoaren eta bide segurtasunaren ikuspuntutik Korrikaren ibilbideko puntu, bidegurutze edo tarteak zaintzeko.

2. Esan beharra dago ez dagoela erantzule jakin bat auzitan jartzen den erabakia hartu zuena; izan ere, halako espedienteak ebazteko organo administratibo eskudunak aintzat hartu eta lehen galderaren erantzunean aipatu ditugun irizpideengatik eman zen ezezkoa.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 8an.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

---

# Renfek Nafarroako trenbide sarean eginikoei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak Renfek Nafarroako trenbide sarean eginikoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 10eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrenak galdera egin du Renfek Nafarroako trenbide sarean eginikoei buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Galdegilearen intereseko gaiek Departamentu honetan zuzenean eragiten ez dutenez, erantzun ahal den eta zehatzen eta fidagarrienak lortzeko, Renfe trenbide konpainiako lehendakari Miguel Corsini jaunari eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilari José Ignacio Palacios Zuasti jaunari igorri dizkiot galderak. Erantzunak jaso bezain laster, informazioa igorriko dizut.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 11n

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

# Gainerako autonomia erkidegoetan Kohesio Funtsaren bidez biztanleko eginiko inbertsioei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak gainerako autonomia erkidegoetan Kohesio Funtsaren bidez biztanleko eginiko inbertsioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 10eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrenak galdera egin du gainerako autonomia erkidegoetan Kohesio Funtsaren bidez biztanleko eginiko inbertsioei buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Erantzun ahal den eta zehatzen eta fidagarrienak lortzeko, galdera Ogasun Ministerioko Europako Funtsen eta Lurralde Finantzaketaren zuzendari nagusi Julio Gómez-Pomar jaunari igorri diot. Erantzuna jaso bezain laster, informazioa igorriko dizut.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 11n

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

---

# Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zaharrentzako oporraldi programetan lekuak erreserbatzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zaharrentzako oporraldi programetan lekuak erreserbatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 2ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak galdera egin du Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zaharrentzako oporraldi programetan lekuak erreserbatzeari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak aurten edo aurreko urteetan ehuneko zehatzik erreserbatu al du IMSERSOk ezarritako lekukupotik? Baiezkoan, adieraz bedi zer urtetan, erreserbaturiko postuen kopurua eta eskainitako guztizko kopuruaren gain horiek egiten duten ehunekoa.

2.- Zein da lekuak erreserbatzearen xedea?

3.- Zein irizpideri jarraituz esleitzen dira erreserbatu diren lekuak?

Programa horretan, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak eskariak banatu besterik ez du egin.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ez du sekula IMSERSOren Oporraldien Programako lekurik erreserbatu, erakunde horrek berak zuzenean kudeatzen baitu, autonomia erkidegoen inolako parte-hartzerik gabe, ondoren jasota dagoen bezala.

Nagusientzako Oporraldietarako eta Turismo Lekuetan Enpleguari Eusteko Programa adineko pertsonei zuzenduta dago, kolektibo hori korronte turistikoetan sartu eta aldi berean enpleguaren arloan turismoaren urtarokotasunak sortzen dituen arazoak arintzeko asmoz.

2001/2002 denboraldirako, 410.000 plaza egonen dira; horietako 5.495 Nafarroako Foru Komunitateari dagozkio.

Hona programan sartzeko baldintzak:

Bizilekua Espainian eduki eta ondoko baldintzak betetzen dituzten pertsonak sartu ahal dira programan:

. Gutxienez ere 65 urte beteak izatea.

. Pentsioen Sistema Publikoko erretiroa jasotzen duen pentsioduna izatea.

. Pentsioen Sistema Publikoko bestelako pentsiodunak eta 60 urte beteko aurre-jubilatuak.

Ezkontideak ez du zertan bete adin eta pentsioari dagozkion baldintzak.

Laguntzaile moduan seme/alaba ezgaitu bat joan daiteke, % 45 edo minusbaliotasun handiagoa badu, baldin eta bidaia gurasoekin egin eta hoteleko gela bereko ohe gehigarri batean lo egiten badu. Eskariaren 17. atala bete beharko da seme/alabaren datuekin, eta IMSERSOren edo kasuan kasuko autonomi erkidegoan eskumena duen erakundearen minusbaliotasunaren ziurtagiriaren fotokopia gehitu beharko da.

Programan parte hartu nahi duten pertsonek behar den eskaria egin beharko dute.

IMSERSOk erabilgarri zenbat leku dauzkan, horrenbeste erabiltzaile onartuko du, eta beharrezkoa bada, behar den baremoa aplikatuko du, adina, dirusarrerak eta aurretik eginiko bidaiak baloratuz. Horren arabera lorturiko puntuazioak kreditazioak esleitzen parte hartzeko lehentasunen hurrenkera zehaztuko du.

Eskatzaile guztiek IMSERSOren jakinarazpen bat jasoko dute. Ondokoa azalduko zaie bertan:

1. Lekua bermatuta, txartelak hartzeko eguna. Betiere, bidaia daudenen artean aukeratu beharko du.

2. Behin baremoa aplikatu ondoren plaza bermatuta ez dutenei ere bidai agentziara joateko eguna jakinaraziko zaie, edozein bidaia edo datatan lekurik egonez gero hura hartu ahal izateko.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 14an.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

---

## RTVE ente publikoko kontseilu aholku-emaileak salatutako egoerari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix Mª Taberna Monzón jaunak RTVE ente publikoko kontseilu aholku-emaileak salatutako egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 2ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix Mª Taberna Monzón jaunak galdera egin du RTVE ente publikoko kontseilu aholku-emaileak salatutako egoerari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuak badauka kontseilu aholku-emaileak salaturiko egoeraren berri?

Espainiako Irrati-telebistaren Kontseilu Aholku-emaileak ez dio galderaren xede den gaiari buruzko inolako salaketa edo idatziren berri eman departamentu honi.

Hala eta guztiz ere, Departamentuko zerbitzu teknikoek egunero Nafarroako TVEren lurralde-programazioaren jarraipena egin dute, eta argi dago ez dela guztiz betetzen ari akordio horretan ezarritakoa.

2. RTVEk Nafarroan dauzkan arduradunekin elkarrizketarik egin du edo eginen du, hitzarmenari dagozkion ez-betetzeak zuzentzeko?

Jarraipen batzordearen azken bileran, agerian geratu zen ez zegoela ados hitzarmenean oinarriturik ematen ari zen lurralde-programazioaren kopuruarekin, ez eta edukiekin ere –behin eta berriro errepikatzen baitira.

3. Nafarroako Gobernuak betetzen al du hitzarmenean berari dagokiona?

Nafarroako Gobernuari dagokionez hitzarmenak ezarritako betebehar aipagarriena lurralde-programazioko zerbitzuen ordain gisa itundutako diru-kopurua ordaintzea da. Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak hitzartutako kopuru orokorretik egin ez den programazioari dagokion zatia deskontatzen du.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 15ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

# Sendagaiak ordaintzeko modua aldatzeko aukerari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak sendagaiak ordaintzeko modua aldatzeko aukerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 2ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du sendagaiak ordaintzeko modua aldatzeko aukerari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Zer berri du Osasun kontseilariak horri buruz?

Gaiari buruz dauzkagun albisteak komunikabideetan azaldutakoak dira, hain zuzen ere parlamentu-galdera justifikatzen dutenak; haien arteko batzuen arabera, ministroak guztiz gezurtatu du nazioko gobernua erretiratuek medikamentuen hein bat ordaintzeko aukera aurreikusten ari denik.

2.- Osasun kontseilariaren ustez, medikamentuak hein batean ordaintzeari dagokionez ezer taxu-bidean dago, ala, berriro ere, gizartearen baitako jarrerak ikusteko haztamu-saio bat da?

Galdera horri erantzuteko presuntzio ugari egin behar dira; hori dela eta, uste dut erantzunak ez lukeela behar den zuzentasuna izanen: gaiari buruzko iritzi bat baizik ezinen nuke eman. Alabaina, askoz ere garrantzitsuagoa izanen litzateke, ikuspegi politiko eta sanitariotik, egitate edo proposamen zehatzei buruz hitz egitea; halakorik ez dago, ordea, kasu honetan. Badakigu Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluaren Farmazi Kudeaketarako batzordea agiri bat prestatzen aritu dela farmazi prestazio eraginkorragoa emateko behar diren neurriei buruz, baina dagoeneko prestaturik dauden agirietako bakarrean ere ez da ageri gaixoari zuzenean egotzitako finantzaketaren aukerarik.

3.- Zer deritzo Osasun Departamentuak medikamentuak pentsiodunek hein batean ordaintzeari?

Medikamentuak hein batean ordaintzea gure osasun sisteman aspalditik dagoen errealitate bat da, gobernu guztiek bere egin dutena; haren arabera, populazio aktiboak beren diruarekin parte hartzen dute zuzenean Osasun Sistema Nazionalak preskribituriko medikamentuak ordaintzen. Ageriko egitate horretatik harantzago, farmazi gastua finantzatzeko testuinguruari buruz dudan iritzia legegintzaldi honetan Osasun Batzordean egin nuen lehenbiziko agerraldian eman nuen. Neure egiten ditut orain ere orduan esandakoak.

4.- Zein izanen da Osasun kontseilariak lurralde arteko kontseiluan izanen duen jarrera eta iritzia, baldin eta aipaturiko egoera aztertzeko asmoz kontseilu horretarako deia egiten bada?

Galderan adierazi bezala “aipaturiko egoera aztertu” behar izanez gero, zehaztasunez jardungo nuke datuak aztertuz eta interes orokorretara joaz erabakiak hartzeko garaian.

5.- Gaixoen errentaren arabera pentsiodunek medikamentuak hein batean ordain ditzatela onesten bada: zer eragin izanen du Nafarroako herritarrengan?

Ezin diot galderari erantzun, etorkizuneko ustezko gertakari zehaztu gabea baita.

6.- Kontseilariaren ustez, sistema eraginkorra izanen litzateke farmazi gastua murrizteko, ala kontsumitzaileen sakelan eragin nabarmena izanen lukeen diru-bilketarako sistema soil bat litzateke?

Ezin diot galderari erantzun, etorkizuneko ustezko gertakari zehaztu gabe bati buruzko iritzia eskatzen didazulako. Betiere, gaiari buruzko kontzeptu politikoak ez dira galderako “farmazi gastua murriztea” edo “diru-bilketako sistema soil bat” bezalako terminoetan islatzen, baizik eta osasunaren ikuspegitik askoz ere interesgarriagoa den kontzeptu batean: “medikamentuen behar bezalako erabilera” eta “farmazi prestazioaren eraginkortasuna”. Bestela esateko, Osasun Departamentuak sekula ez du joko bere erabakietan aurrezki zehaztu gabe ahal den eta handiena lortzera edo diru-bilketara, baizik eta osasun emaitzak hobetzera, baliabideak modu jakin batean erabili ahal izateko.

7.- Zer eragin izanen luke Konstituzioak eta osasunari buruzko lege orokorrak eta foru legeak herritarrei bermatzen dieten osasunerako eskubidean?

Ezin diot galderari erantzun, zehaztu gabeko planteamendu bat baita.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 3an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

---

# Altsasuko suhiltzaileen parkeko zerbitzu medikuduna hobetzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix Mª Taberna Monzón jaunak Altsasuko suhiltzaileen parkeko zerbitzu medikuduna hobetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 15eko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix Mª Taberna Monzón jaunak galdera egin du Altsasuko suhiltzaileen parkeko zerbitzu medikuduna hobetzeari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Altsasuko osasun eskualde oinarrizkoan dauden larrialdietako zerbitzuak dira 351/92 Foru Dekretuak ezarritakoak,zehazki, hauexek:

– Sendagilea eta erizaina lanean osasun etxean bertan 22:00ak arte eta eskualdean eta osasun etxetik kanpo, eskualdean, 22:00etatik biharamuneko 8:00ak arte.

– Suhiltzaileen anbulantzia Altsasuko parkean.

– Osasunbideak itunduriko anbulantzia, basea Altsasun duena.

– Larrialdietarako plana 1997ko irailean abian jarri zenez geroztik neurri hauek ere ezarri dira;

– Anbulantziak ZIU mugikor bihurtu ahal izateko behar den materialaz hornitzea.

– Guardiak egiten dituzten langileen (langile finkoak, bitartekoak edo asteburuetan zerbitzua indartzekoak) etengabeko prestakuntza larrialdien arloan.

– Osasun arloko langileari lagundu eta eskualdetik alde egiteko lege estaldura, “anbulantzi arruntei medikua atxikitzeko” dispositiboa ahalbidetzeko.

– Iruñetik ZIU mugikorrak bertaratzea, eskualde oinarrizkoan guardian ari diren osasun langileei laguntzeko.

Egoera horretan daude egun Nafarroa osoko eskualde oinarrizkoak, Iruña, Lizarra eta Tuterako hiriguneak salbu, haien ezaugarriak direla-eta badituztelako beste zerbitzu batzuk, hiri esparrurako egokiak.

Ez dago zalantzarik, Altsasun ZIU mugikor bat kokatzea erabaki ezin hobea iruditu ahal zaigu, eta gauza bera pentsa dezakegu Tafalla, Zarrakaztelu, Azkoien edo Baztanen kasurako. Baina datuak aztertzen baditugu, larrialdien kopurua, kostuak eta kalitate maila gutxienekoa –larrialdi kopuru nahikoa izanez gero baino lortzen ez dena– bermatu beharra, bistan da ez dela irtenbiderik egokiena.

Eginkizunen azterketa

2000. urtean, Iruñetik 41 aldiz (egunean 0,11) igorri zen ZIU mugikorra pertsona baten bizia arriskuan egoteagatik. Etxarri-Aranatz aldea gehitzen badiogu, 31 gehiago dauzkagu, beraz 0,19 eguneko.

Urte osoan egunean 24 orduko zerbitzuak emateko sei sendagile eta sei erizain behar dira. Maiztasun horrekin esku hartuko lukeen larrialdietako sendagile-erizainen taldea ez litzateke sekula egonen ongi trebaturik, urtean 72/6 = 12 larrialdi tokatuko litzaieke eta. Argi dago ez dela ailegatzen kalitatezko zerbitzua izateko behar adinako larrialdi kopurura.

Azterketa ekonomikoa

ZIU baten urteko kostua 85 milioi ingurukoa da (60 langileak eta 25 ibilgailua). Suhiltzaileen ibilgailu bati medikua atxikiz gero kostua 60 milioikoa izanen litzateke.

Zilegi bekit gogoraraztea aipatu kostuaren eta antzeko arrazoiak izanik zerbitzua eskatuko luketen beste eskualde oinarrizkoen biderketa egin beharko litzatekeela.

Proposatzen diren alternatibak

– Helikoptero medikuduna izatea berehalakoan ateratzeko (berez, egunez erabiltzekoa). Horrek bide emanen luke Iruñeko ekipo medikudunak erantzuna emateko denbora murriztu eta larrialdietako laguntza espezializatua igortzeko 15 minututan, kalkuluen arabera.

– Gehitu daiteke denbora tartea txikiagoa dela bai ekipo medikuduna ailegatzeko bai ospitalera eramateko.

– Suhiltzaileen partzuergoarekin lankidetzan aritzeko ireki dugun bide horretan aztertzen ari gara suhiltzaileen anbulantziak ere trafikoko istripuetara eskualde oinarrizkoan guardian dauden sendagilearekin eta erizainarekin joateko aukera, denbora epeak eta koordinazioa hobetzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko maiatzaren 14an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

---

## Galdera, 2001-2002 ikasturteko aurrematrikulazio datuei buruzkoa, hezkuntza-maila eta hizkuntza-ereduka

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, 2001-2002 ikasturteko aurrematrikulazio datuei buruz –hezkuntza-maila eta hizkuntza-ereduka– egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 10eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du hezkuntza-maila eta hizkuntza-ereduka, 2001-2002 ikasturteko Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetako aurrematrikulazio datuei buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

## 1.- 2001-2002 IKASTURTEKO AURREMATRIKULAZIO DATUAK

| Herria | Ikastetxe mota | Izena | Titularra | Eremua | Ikasle kopurua G | A | D |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Iruña | Ikastola | Amaiur | Udala | Mistoa | | | 30 |
| Iruña | Ikastola | Axular | Udala | Mistoa | | | 30 |
| Iruña | Ikastola | Hegoalde | Udala | Mistoa | | | 46 |
| Abarzuza | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Mistoa | | 5 | |
| Antsoain | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Ezkaba | Nafarroako Gobernua | Mistoa | | 20 | 70 |
| Agoitz | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Miguel | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 2 | 2 | 15 |
| Barañain | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Los Sauces | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 7 | 34 | |
| Barañain | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Alaiz | Nafarroako Gobernua | Mistoa | | | 64 |
| Barañain | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Eulza | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 5 | 46 | |
| Berriozar | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Mendialdea | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 5 | 10 | 23 |
| Burlata | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Hilarión Eslava | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 21 | 20 | |
| Burlata | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Ermitaberri | Nafarroako Gobernua | Mistoa | | | 42 |
| Zizur Nagusia | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Zizur Nagusia (I) | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 23 | 99 | |
| Zizur Nagusia | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Zizur Nagusia (II) | Nafarroako Gobernua | Mistoa | | | 69 |
| Lizarra | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Remontival | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 5 | 29 | 37 |
| Ezcaroze | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Román | Nafarroako Gobernua | Mistoa | | 1 | |
| Uharte | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Virgen Blanca | Nafarroako Gobernua | Mistoa | | 9 | 19 |
| Izaba | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Cipriano | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 2 | | |
| Lezaun | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Mistoa | | 4 | |
| Otsagi | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Mistoa | | 2 | 5 |
| Orkoien | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Miguel | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 3 | 20 | |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Francisco | Nafarroako Gobernua | Mistoa | | 6 | 32 |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | José María de Uharte | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 17 | | |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | José Vila Marqués | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 0 | | |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Nicasio de Landa | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 7 | | |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Iturrama | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 7 | 16 | |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Jorge | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 4 | 23 | |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Cardenal Ilundain | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 7 | 4 | |

| Herria | Ikastetxe mota | Izena | Titularra | Eremua | Ikasle kopurua G | A | D |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Ave María | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 7 | 3 | 39 |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Vázquez de Mella | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 31 | | |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Victor Pradera | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 5 | | |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Ermitagaña | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 7 | 19 | |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | García Galdeano | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 6 | | |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Juan de la Cadena | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 11 | 40 | |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Arturo Campión | Nafarroako Gobernua | Mistoa | | 7 | 31 |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Sanduzelai | Nafarroako Gobernua | Mistoa | | | 48 |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Azpilagaña | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 8 | 19 | |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Mendillorri (I) | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 3 | 49 | |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Mendillorri (II) | Nafarroako Gobernua | Mistoa | | | 40 |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Mendillorri (III) | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 1 | 60 | |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Mendillorri (IV) | Nafarroako Gobernua | Mistoa | | | 84 |
| Gares | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 3 | 15 | 15 |
| Erronkari | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Julián Gayarre | Nafarroako Gobernua | Mistoa | 2 | | 6 |
| Atarrabia | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Lorenzo Goicoa | Nafarroako Gobernua | Mistoa | | 18 | 47 |
| Abarzuza | Hezkuntza ikastetxea | Escuelas Pías | Pribatua | Mistoa | 5 | | |
| Barañain | Hezkuntza ikastetxea | Santa Luisa de Marillac | Pribatua | Mistoa | 56 | | |
| Burlata | Hezkuntza ikastetxea | Amor de Dios-Regina Pacis | Pribatua | Mistoa | 0 | | |
| Burlata | Hezkuntza ikastetxea | Irabia | Pribatua | Mistoa | 39 | | |
| Burlata | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Amor de Dios | Pribatua | Mistoa | 18 | | |
| Burlata | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Notre Dame | Pribatua | Mistoa | 19 | | |
| Burlata | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Regina Pacis | Pribatua | Mistoa | | 25 | |
| Zizur txikia | Ikastola | San Fermín | Pribatua | Mistoa | | | 82 |
| Lizarra | Hezkuntza ikastetxea | Santa Ana | Pribatua | Mistoa | 44 | | |
| Lizarra | Hezkuntza ikastetxea | Nuestra Señora del Puy | Pribatua | Mistoa | | | |
| Lizarra | Ikastola | Lizarra Ikastola | Pribatua | Mistoa | | | 57 |
| Uharte | Hezkuntza ikastetxea | Miravalles | Pribatua | Mistoa | 75 | | |
| Uharte | Hezkuntza ikastetxea | Miravalles-El Redín | Pribatua | Mistoa | | | |
| Iruña | Hezkuntza ikastetxea | Nuestra Señora de la Compasión | Pribatua | Mistoa | | 49 | |

| Herria | Ikastetxe mota | Izena | Titularra | Eremua | Ikasle kopurua G | A | D |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Iruña | Hezkuntza ikastetxea | San Cernin | Pribatua | Mistoa | 137 | | |
| Iruña | Hezkuntza ikastetxea | Santa Catalina | Pribatua | Mistoa | 8 | | |
| Iruña | Hezkuntza ikastetxea | Santa Teresa de Jesús | Pribatua | Mistoa | 50 | | |
| Iruña | Hezkuntza ikastetxea | Hijas de Jesús | Pribatua | Mistoa | 36 | | |
| Iruña | Hezkuntza ikastetxea | Salesianos | Pribatua | Mistoa | | | |
| Iruña | Hezkuntza ikastetxea | Santo Tomás | Pribatua | Mistoa | 6 | 34 | |
| Iruña | Hezkuntza ikastetxea | Calasanz | Pribatua | Mistoa | 50 | | |
| Iruña | Hezkuntza ikastetxea | Cardenal Larraona | Pribatua | Mistoa | 16 | 31 | |
| Iruña | Hezkuntza ikastetxea | El Redín | Pribatua | Mistoa | 0 | | |
| Iruña | Hezkuntza ikastetxea | San Ignacio | Pribatua | Mistoa | 25 | | |
| Iruña | Hezkuntza ikastetxea | Santa María la Real | Pribatua | Mistoa | 72 | | |
| Iruña | Hezkuntza ikastetxea | Ursulinas | Pribatua | Mistoa | 78 | | |
| Iruña | Hezkuntza ikastetxea | Vedruna | Pribatua | Mistoa | 47 | | |
| Iruña | Hezkuntza ikastetxea | Nuestra Señora del Huerto | Pribatua | Mistoa | 49 | | |
| Iruña | Hezkuntza ikastetxea | Santa Catalina-Santísimo Sacramento | Pribatua | Mistoa | 0 | | |
| Iruña | Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Misioneras del Sagrado Corazón | Pribatua | Mistoa | 75 | | |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Esclavas del Sagrado Corazón | Pribatua | Mistoa | 6 | 30 | |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Santísimo Sacramento | Pribatua | Mistoa | | 19 | |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Sagrado Corazón | Pribatua | Mistoa | 48 | | |
| Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Agustín | Pribatua | Mistoa | 43 | | |
| Iruña | Ikastola | Francisco de Jaso | Pribatua | Mistoa | | | 54 |
| Gares | Hezkuntza ikastetxea | Seminario Padres Reparadores | Pribatua | Mistoa | | | |
| Atarrabia | Hezkuntza ikastetxea | La Presentación-Notre Dame | Pribatua | Mistoa | | | |
| Atarrabia | Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Angel de Aralar | Pribatua | Mistoa | 40 | | |
| Atarrabia | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | La Presentación | Pribatua | Mistoa | 12 | 20 | |
| Atarrabia | Ikastola | Paz de Ziganda | Pribatua | Mistoa | | | 83 |
| Ablitas | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | José Luis Arrese | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 4 | 16 | |
| Oibar | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Gabriel Valentín Casamayor | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | 8 | |
| Allo | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | La Cruz | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | 3 | |
| Antzin | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Fausto | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 1 | | |

| Herria | Ikastetxe mota | Izena | Titularra | Eremua | Ikasle kopurua G | A | D |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Andosilla | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Virgen de la Cerca | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 12 | 8 | |
| Arguetas | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Sancho Ramírez | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 16 | | |
| Arroitz | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | 8 | |
| Artaxoa | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Urraca Reina | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | 17 | |
| Azagra | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Francisco Arbeloa | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 28 | | |
| Barasoain | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Martín Azpilkueta | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | 14 | |
| Beire | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 1 | | |
| Berbintzana | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 3 | | |
| Beriain | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 4 | 24 | |
| Buñuel | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Santa Ana | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 17 | | |
| Cabanillas | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Juan de Jerusalén | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 8 | | |
| Cadreita | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Teresa Bertrán de Lis | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 11 | 5 | |
| Caparroso | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Virgen del Soto | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 5 | 9 | |
| Cárcar | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Virgen de Gracia | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | 6 | |
| Zarrakaztelu | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Virgen de la Oliva | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 4 | 11 | |
| Cascante | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Santa Vicenta María | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 7 | 20 | |
| Kaseda | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Francisco Javier Sáenz de Oiza | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 3 | 7 | |
| Castejón | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Dos de Mayo | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 19 | 3 | |
| Cintruénigo | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Otero de Navascués | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 39 | 13 | |
| Zirauki | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Virgen de Aniz | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | 3 | |
| Corella | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | José Luis Arrese | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 61 | | |
| Cortes | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Cerro de la Cruz | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 5 | 21 | |
| Deikaztelu | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Virgen de Nievas | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 2 | 7 | |
| Eslaba | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 0 | 0 | |
| Faltzes | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Doña Alvara Alvarez | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 3 | 6 | |
| Figarol (Zarrakaztelu) | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Nuestra Señora de Ujué | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 4 | | |
| Fitero | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Juan de Palafox | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 9 | | |
| Fontellas | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Virgen del Rosario | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 6 | | |
| Funes | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Elías Terés | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 18 | | |
| Fustiñana | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Santos Justo y Pastor | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 17 | | |

| Herria | Ikastetxe mota | Izena | Titularra | Eremua | Ikasle kopurua | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | G | A | D |
| Larraga | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Miguel de Larraga | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 14 | | |
| Lerín | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Doña Blanca de Navarra | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | 6 | |
| Ledea | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Leyre | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 0 | 0 | |
| Lodosa | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Angel Martínez Baigorri | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 15 | 12 | |
| Los Arcos | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Santa María | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 5 | 3 | |
| Irunberri | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Juan | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 2 | | |
| Mañeru | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 0 | 0 | |
| Martzilla | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Bartolomé | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 7 | 5 | |
| Mélida | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Santa Ana | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 1 | | |
| Mendavia | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 0 | 0 | |
| Mendigorria | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Julián María Espinal Olcoz | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 3 | 5 | |
| Milagro | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Nuestra Señora del Patrocinio | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 18 | | |
| Miranda-Arga | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Benito | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | 6 | |
| Elo | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Santa Bárbara | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | 1 | |
| Monteagudo | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Honorio Galilea | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 3 | | |
| Murchante | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Mardones y Magaña | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 22 | 6 | |
| Murieta | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | 1 | |
| Murillo el Fruto | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Raimundo Lanas | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 5 | | |
| Mutiloabeiti (Aranguren) | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Pedro | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | 22 | |
| Nabaskoze | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 0 | 0 | |
| Noain | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Miguel | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 4 | 22 | |
| Obanos | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | 2 | |
| Erriberri | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Príncipe de Viana | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 2 | 28 | |
| Oteitza | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Salvador | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | 6 | |
| Azkoien | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Juan Bautista de Irurzun | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 41 | 11 | |
| Pitillas | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | 4 | |
| Arrada (Murillo el Cuende) | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Ximénez de Rada | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | 7 | |
| Ribaforada | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Bartolomé | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 11 | 7 | |

| Herria | Ikastetxe mota | Izena | Titularra | Eremua | Ikasle kopurua G | A | D |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Zare | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Nicolás | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 0 | 0 | |
| San Adrián | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Alfonso X el Sabio | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 23 | 3 | |
| San Martin Unx | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Hermanos Brull Ayerra | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | 1 | |
| Zangoza | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Luis Gil | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 1 | 32 | |
| Santakara | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Nuestra Señora de la Asunción | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | 7 | |
| Sartaguda | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Nuestra Señora del Rosario | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 1 | 6 | |
| Sesma | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Virgen de Nievas | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 5 | | |
| Tafalla | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Marqués de la Real Defensa | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 5 | 28 | |
| Tutera | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Elvira España | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 32 | | |
| Tutera | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Griseras | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 33 | 18 | |
| Tutera | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Torre Monreal | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | | |
| Tutera | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Monte San Julián | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 22 | 20 | |
| Tutera | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Virgen de la Cabeza | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 4 | 9 | |
| Uxue | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Carlos II de Navarra | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | 2 | |
| Urrotz | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | 2 | |
| Valtierra | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Félix Zapatero | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 9 | | |
| Viana | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Ricardo Campano | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 7 | 10 | |
| Villafranca | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | El Castellar | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | 8 | 11 | |
| Villatuerta | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Veremundo | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | 11 | |
| Zudaire (Ameskoabarren) | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Las Améscoas | Nafarroako Gobernua | Ez euskalduna | | 10 | |
| Aiegi | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Mater Dei | Pribatua | Ez euskalduna | 6 | 19 | |
| Lodosa | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | La Milagrosa | Pribatua | Ez euskalduna | 17 | | |
| Mendavia | Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Nuestra Señora de los Dolores | Pribatua | Ez euskalduna | 3 | 22 | |
| Mutiloabeiti (Aranguren) | Hezkuntza ikastetxea | Luis Amigó | Pribatua | Ez euskalduna | 50 | | |
| Ribaforada | Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Francisco Javier | Pribatua | Ez euskalduna | 14 | | |
| Zangoza | Ikastola | Zangotzako | Pribatua | Ez euskalduna | | | 11 |
| Tafalla | Hezkuntza ikastetxea | Escuelas Pías | Pribatua | Ez euskalduna | 0 | | |
| Tafalla | Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San José | Pribatua | Ez euskalduna | 46 | | |

| Herria | Ikastetxe mota | Izena | Titularra | Eremua | Ikasle kopurua G | A | D |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Tafalla | Ikastola | Garcés de los Faios | Pribatua | Ez euskalduna | | | 35 |
| Tutera | Hezkuntza ikastetxea | Anunciata | Pribatua | Ez euskalduna | 37 | | |
| Tutera | Hezkuntza ikastetxea | San Francisco Javier | Pribatua | Ez euskalduna | | | |
| Tutera | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Compañía de María | Pribatua | Ez euskalduna | 75 | | |
| Valtierra | Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Nuestra Señora de Nieva | Pribatua | Ez euskalduna | 9 | | |
| Elizondo | Ikastola | Baztan Ikastola | Udala | Euskalduna | | | 9 |
| Almandoz (Baztan) | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 3 |
| Altsasu | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Navarro Villoslada | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | 5 | 34 |
| Amaiur (Baztan) | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 2 |
| Arantza | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 2 |
| Arbizu | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 5 |
| Areso | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 2 |
| Arizkun (Baztan) | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 4 |
| Arraioz (Baztan) | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 0 |
| Auritz | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 5 |
| Aurizberri (Erroibar) | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Auzperri | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 5 |
| Azpilkueta (Baztan) | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 0 |
| Beintza-Labaien (Labaien) | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 1 |
| Bera | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Ricardo Baroja | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 9 |
| Betelu | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Araxes | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 1 |
| Doneztebe | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 27 |
| Etxarri-Aranatz | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Donato | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | 4 | 4 |
| Elizondo | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Francisco Javier | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | 4 | 26 |
| Eratsun | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Polainea | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | |
| Erratzu (Baztan) | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 1 |
| Erro | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Esteban | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 0 |

| Herria | Ikastetxe mota | Izena | Titularra | Eremua | Ikasle kopurua G | A | D |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Etxalar | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 3 |
| Eugi (Esteribar) | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Gil | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | 1 | |
| Garralda | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Nuestra Señora de Orreaga | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | 1 | 4 |
| Gartzain (Baztan) | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 1 |
| Goizueta | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Andrés Narbarte Xalto | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 5 |
| Igantzi | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 3 |
| Irurita (Baztan) | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 4 |
| Irurtzun | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Atakondoa | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | 7 | 17 |
| Ituren | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 5 |
| Iturmendi | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Arrano Beltza | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 5 |
| Jauntsarats (Basaburua) | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Oihanzabal | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 2 |
| Lakuntza | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Luis Fuentes | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 8 |
| Larraintzar (Ultzama) | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Obispo Irurita | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | 2 | 11 |
| Legasa (Bertizarana) | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 1 |
| Leitza | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 10 |
| Lekunberri | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 14 |
| Lesaka | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Irain | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 8 |
| Luzaide | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | 3 | |
| Narbarte (Bertizarana) | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Arotzenea | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 0 |
| Olazti | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Domingo Bados | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 2 |
| Oronoz (Baztan) | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 4 |
| Saldias | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 0 |
| Sunbilla | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 6 |
| Uharte-Arakil | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | San Miguel | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 1 |
| Urdiain | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 4 |
| Ziga (Baztan) | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 1 |
| Zubiri (Esteribar) | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Xabier Zubiri | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | 4 | 6 |
| Zugarramurdi | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | | Nafarroako Gobernua | Euskalduna | | | 4 |

| Herria | Ikastetxe mota | Izena | Titularra | Eremua | Ikasle kopurua | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | G | A | D |
| Altsasu | Hezkuntza ikastetxea | Sagrado Corazón | Pribatua | Euskalduna | | | |
| Altsasu | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Sagrado Corazón | Pribatua | Euskalduna | | 13 | |
| Altsasu | Ikastola | Íñigo Aritza Ikastola | Pribatua | Euskalduna | | | 29 |
| Altsasu | Ikastola | Sakana Ikastola | Pribatua | Euskalduna | | | |
| Arbizu | Ikastola | Andra Mari | Pribatua | Euskalduna | | | 5 |
| Bera | Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea | Sagrado Corazón | Pribatua | Euskalduna | | 3 | |
| Bera | Ikastola | Labiaga | Pribatua | Euskalduna | | | 13 |
| Etxarri-Aranatz | Ikastola | Andra Mari | Pribatua | Euskalduna | | | 19 |
| Lesaka | Ikastola | Tantirumairu Ikastola | Pribatua | Euskalduna | | | 8 |

2. Gaurko egunean ez da 2001-2002 ikasturteko matrikulazio daturik, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako matrikula egiteko epea aurtengo ekainaren 25etik uztailaren 3ra bitartekoa delako, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emaniko urtarrilaren 25eko 19/2001 Foru Aginduan, diru publikotik ari diren irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetan ikasleak 2001/2002 ikasturtean onartzeko prozedura arautzen duen horretan ageri bezala.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko maiatzaren 18an.

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Mª Laguna Peña

## Erreserben Zentralaren egoerari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak Erreserben Zentralaren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 10eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Erreserben Zentralaren egoerari buruz. Hona Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

Une hauetan, informazio-zentral bat sortu eta indartzen ari da; erreserben zentrala, ordea, desagertu egin da. Zentral horrek, azken urte hauetan, urtean 700 erreserba inguru egiten zituen: beraz, agerian dago gutxi erabili dela eta, horrenbestez, ez duela balio.

Hori guztia dela eta, informazio-zentralaren lana indartu nahi izan da, erreserben zentralak berak horixe eskatzen baitzuen.

Gobernuak uste du ekimen pribatuak kudeatu behar dituela bere erreserben zentralak, eta laguntza emanen die bide horretan sektore pribatuan sortzen diren ekimen guztiei. Egun, elkarteen proposamenak jaso zain gaude.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 21ean.

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

HARPIDETZAREN PREZIOA

ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA

| | | |
|---|---|---|
| Urte bat | 6.300 | pta. |
| Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa | 150 | » . |
| Bilkura Egunkariaren aleko prezioa | 185 | » . |

IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA
**NAFARROAKO PARLAMENTUA**
«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»
Arrieta 12, 3
31002 IRUÑA

Inprimatzailea: ONA Industria Gráfica (Iruña).
Lege Gordailua: NA – 363-1995
Paper ekologiko birziklatua